



ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**intsumisioa
eta gartzela
aurrez aurre**




kide
APAINDURA
 Cercas Bajas, 27
 Tfnoa: 14 41 95
 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
 HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
 ☎ 28 79 42
 GASTEIZ



SANTI
 HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
 ☎ 270790
 GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
 HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
 2 eta 3
 Abastos Azoka ☎ 26 78 97
 2 eta 3 GASTEIZ



JOSEBA
 HARATEGIA
 PARAGUAY MERKATUA
 10 ZENBAKIA
 El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
 GASTEIZ

gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak

aukerarik zabalena
kalitaterik onena

geu gasteiz apirila

Gartzela eta intsumisia aurrez-aurre

10. orrialdea



San Prudentzio eguna non, perretxikoak han

16. orrialdea



Karlos Lasherasek inoiz aitortzen ausartu ez dena

inkestak

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Ponentziaren porrota

ARABAKO Biltzar Nagusietan euskararen inguruan sortu duten ponentziak eztabaida piztu du gizartean. Eta polemika hori ez da alderdi espainolisten gustokoa izan, ponentziaren helburua eztabaida erakundeetan (eta ez kalean) bideratzea zelako.

Haatik, nahi ez zuten erantzuna lortu dute. Euskararen inguruko hainbat taldek zalantzan jarri dute ponentziaren zeregina eta jokabidea, agindutako hizkuntz politikaren azterketan euskararen eskakizuna murrizteko ahaleginari antzeman ziotelako. Izan ere, horixe zen azterketa egiteko zioa, Administrazioan lan egiteko euskararen eskakizuna "gehiegizkoa" dela uste baitu Biltzar Nagusietako gehiengoak, PSE-EE, PP eta UAren biltzarkideek, hain zuzen ere.

Datuek, hala ere, ez diete arrazoirik ematen. Azken lau urteotan 2.000 lanpostu inguru sortu dira Arabako administrazioetan eta 54ri bakarrik exijitu zaie euskara ezagutzea. Lau, gainera, itzultzaileak dira. Ez dirudi gehiegizko eskakizuna denik, hiru alderdi politiko horiek dioten bezala.

Eztabaida bultzatzeko bigarren arrazoi bat ere badago. Ponentzian bi azterketa egitea hitzartu zuten, bata eta bestearen emaitzak parean jarri eta ondorioak ateratzeko. Baina, jakina denez, azterketa bakarra burutu da, eta gainera, Amando de Miguel, euskaldunoi oroitzapen onik ez dakarkigun soziologoa, izan da lan-taldearen buru.

Arabako euskaltzaleen errezeloak bidezkoak dira, beraz. Erantzunak, gainera, neurrikoak izan dira, ez "euskaldun batzuen intolerantziaren ondorioak",



Anton Sáenz de Santamariak eta Ernesto Ladrón de Gebarak adierazi duten bezala. Araban egindako hizkuntz politika berraztertu behar da, baina hemengo biztanle euskaldunen behar eta nahiei benetan eta zein neurritan erantzun ote dien ikusteko, tolerantziaren aldeko manifestuak agertzen duen moduan. Berazterketaren helburua orain arteko ahaleginak gutxitzea bada, ez du, jakina, euskaldunon oniritzia jasoko. Era berean, eztabaidak eta erantzunak ere ez dira gutxituko, Anton Sáenz de Santamaria eta Ernesto Ladrón de Gebara bezalakoei ulertezina iruditzen bazaie ere.

Felix Iriarte
Euskaldunon Egunkariako
kazetaria

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Karlos Etxenausia **Erredakzio-burua:** Ismael Diaz de Mendibil **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo

Hizkuntz arduraduna: Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrakziak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika, Xabier Etxaniz, JuanJose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikunik

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

Pisua: _____

ZKIA: _____

Kalea mintzo Aste Santuaz

GIZARTEAREN BALORE asko aldatu bada ere, tinko diraute oraindik tradizioan oinarritutako erlijio-ekintza deigarri batzuek: prozesioek, besteak beste. Aurki, urtero bezala, jai-giroa eta erlijioa uztartuko dira gure herri eta hirietako kaleetan zehar; bateragarriak ote? galdu al du Aste Santuak erlijio kutsua? ugaldu ote dira prozesioen jarraitzaileak eta ikusleak?



1. Nola bizi izaten duzu Aste Santua?

2. Bateragarriak al dira oporraldia eta erlijio-ohiturak?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



BASILICA ITURRATE
Jubilatua

1. Ahalik eta erarik fededunean. Denboraren joan-etorriak ez dizkit ohiturak epeldu, ez horixe.

2. Ez dute zertan bateragarri izan behar. Gauza bakoitza bere garaian ospatu behar dugu.



BERTSOAK

GAIA:

Apirilean, zer?

EGILEA:

Serapio Lopez

DOINUA:

Zortziko handia



OHARRA: agortu dugu tirada, laster handituko dugu. Bitartean pazientzia izan, zuen izenak gordetzen ari gara.

**Apiril biribil
gaur erein
eta bihar bil**

I
Apirilean badugu hainbat motibo jartzeko alai bidaia edo prozesioak aukerak badira nonnahi fededunentzat obligazio eta besteentzako jai bakoitzak gura duena baina guztiok noiz helduko zai

II
Badakizue batzuentako jai egun pila dagona Prudentzioko zubiarekin nahiko hilabete ona gero maiatzak lehena dugu langile fin guztion hobe ez pentsa zer nolakoa izango den "bixamona"



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05

Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92

Eguneko menua



ANA MTZ. LUNA
Ikaslea



JESUS PEREZ
Jubilatua



MARTA MORGADO
Ikaslea



PASCUAL SARAZIBAR
Langabea



J. PEDRO DELGADO
Atezaina

1. Herrira joaten naiz eta han rlijio-ohiturak oso errotuta daudenaz, jende guztiak hartzen du parte erlijio-ospakizunetan.

2. Nahiz eta lehenengo odura ez ospatu, nik uste jendearen artean fede handia dagoela oraindik.

1. Normalean ostegun santuan mezetara joaten naiz eta "Via Crucis-a" ostiralerako uzten dut.

2. Ez, ezin daitezke bateragarriak izan. Nire ustez Josukristoren heriotza fedez bizi behar da.

1. Aste Santua opr gisa hartzen dut nik; besterik ez.

2. Kristaua izan ez arren, posible da horrelako ohiturak ezagutzea.

1. Ez dakit, nire adineko jendea bezala bizi izaten dut nik Aste Santua

2. Jakina, eta batzuentzat guztiz bateragarriak dira. Hobe esanda, gero eta kasu gehiagotan ikus daiteke nahasketa hori.

1. Nire ustez jai egun batzu besterik ez dira. Normalean, lagunekin poteatzen ibiltzen naiz, eta kitto.

2. Kristaua eta fededuna izanez gero, beste zentzu bat izango luke. Nire kasuan, orde, oporrak besterik ez dira.

KAKALEKUGUAU

ONDOKO LERROAK irakurtzen hasi aurretik, jakin beharko zenuke plaza txiki baina polit batean bizi naizela, bere lorategi, berdegunea eta guzti, Gasteizko ingurune lasai eta erosoan, eta ez nukeela nire etxebizitza lekuz aldatuko, ezta Santuaren etxearen truke. Plaza horretan hartu ditut nire lehendabiziko kolpeak txirringatik jaisterakoan, bertan apurtu ditut nire lehenbiziko kirol-zapatak eta, nola ahaztu!, bertako lurrean egindako zuloxoetan galdu/irabazi ditut garai bateko altxorak ziren kanikak, txapak eta beste.

Behin txirringa, futbola eta bestelakoetarako gogoia eta sasoia galdu eta gero, konturatzen hasia naiz nire plaza kuttuna beste zerbaitetarako erabiltzen dutela nagusiki: txakurrek txisa eta gainontzekoak egin ditzaten, alegia. Leihotik begira zaudela, berehala antzemango duzu norentzat den gure plaza ezaguna eta norentzat ez; postura egingo nuke burua gora sartu eta non zapaltzen duela konturatzen ez den gixajoak, plazatik irtetzerakoan, zapata(k) garbitu behar izango d(it)uela!

Baten batek pentsa lezake exageratua naizela oso, ez dela horrenbesterako, eta abar; baina lagunekin gai honetaz hitzegin eta gero, konturatu naiz nire plazaren kontua ez dela Gasteizen bakarria eta, zoritxarrez, plaza, kale eta ibilbide

askotan gertatzen dela. Aurrera jarraitu baino lehen argitu nahi nuke ez dudala ezer txakurren kontra; nire etxean ez dago txakurrik, baina badakit zer den txakurrekin bizitzea, eta aitortu behar dut oso animala lagungarria izan daitekeela; halere, bizitzaren beste alorretan bezala, norberaren ardura tartean sartzen den bakoitzean denetarik topatzeko arriskua dugu, eta nire plazara datozenak, berdegunearen bila etorri beharrean, kakaleku berdearen bila datoz.

Errazena, gehienetan bezalaxe, errua Udalari egozteaz litzakete, bere gaiarekiko sentsibilitate-eza salatuz, eta abar; baina salbuespena bada ere, oraingo honetan ezin dugu horren erabilgarria den irtenbidea erabili, bost urte baitira bertan "pipican" -euskaraz "kakalekuguau" ?- delako bat Udalak eraiki zuela. Egon, horixe dagoela, baina, inork ez du erabili nahi, ez txakurrek, ezta txakur-jabeek ere, eta hantxe dago, bezerorik gabe, asper-asper eginda. Zergatik hori? Auskalo! Haseran, beti modu onez eta errespetu osoz, jabeari hurbiltzen nintzaion, txakurra zein polita zen aipatu, eta erdi farrez proposatzen nion "kakalekuguau" delakoa erabil zezala, guztion onerako asmakizuna zela argudiatuz; jabeak batzutan farrea bueltatu, bestetan harridura aurpegia jarri, baina kasurik ez. Eta "kakalekuguauaren" birjintasanak tinko dirau.

Postariak ekarria



Azkenengo saio modura, "Kakalekuguauaren Lagunen Elkartea" sortu berri dugu arrebak eta biok; ideia ez da berria, Forondako aireportuarekin egindakoa izan dugu eredu; erabilia ez den zerbaiten aldeko elkartea. Eta gaur arratsaldean Bilbore goaz gure Polaroid hartuta, ea suertea gure alde dagoen eta txakurren bat harrapatzen dugun Bilboko kakalekuguauen batean bere kontuak egiten; negargarria bada ere, hauxe izan da Gasteizko biztanlegoa martxan jartzeko bide bakarra: han egiten bada, nola ez da hemen egingo!! Guau!!

Joseba K. Pérez de Heredia

Victor Martínez:

“Amando de Miguelen kritikak onartezinak dira”

Borroka politikoan hainbeste urte eman ondoren, sekula ez zuen Victor Martínezek pentsatu aurtengoa bezalako legislatura bat sufritu behar izango zuenik. Bizitzako hasarre handienetarikoa hartu zuen bere alderdiko kideek (Euskadiko Ezkerrakoek) PSEra salto egin zutenean. Bera ezkertiar nazionalista, Askotariko Taldera pasa zen, bertoko kide bakarra izanez. Lana, alde batetik eta bestetik pilatu zaio: Santuaren Etxea, Sobrongo parkeko hotela... Baina bada gai nagusi bat oso osorik harrapatu duena Victor. Izan ere, bera dugu Arabako Lurralde Historikoko Hizkuntz Normalkuntzarako eratu den Ponentziako presidentea.



BERE AURPEGIAK nekea erakusten du; baita bere ahotsak ere. Kurtso gogorra izan da honako hau Victor Martínezentzat, eta are gogorragoa examin finalak hurbiltzen diren heinean. Eskolan bezela, lasai hartutako gauzak bukaeran presaka egin ohi direla, Arabako Biltzar Nagusietan ere lana biderkatzen da hauteskundeak hurbil direnean. “Epe honetan, alderdiek bozkaleei begira ibiltzen dira, ordurarte izan ez duten protagonismoa hartuaz. Eta horrela zaila da lan egitea, inolako emaitzik lortuko ez dela baitaukazu argi”.

Hori gertatu da Victorrek presiditzen duen, eta denon ahotan dagoen Euskararen Normalizaziorako Ponentziarekin. Hain

“ **Hizkuntz Normalizaziorako Mahai iraunkor bat eratu beharra dago** ”

zuzen ere, hain polemiko bihurtu den gai honek arrisku handi bat dauka bere gain. “Ponentziak ez dauka inolako zentzurik. Aurrehauteskunde garai hau medio, ez du bere helburua betetzen. Nik behintzat ez dut arazoa objetibitatez lantzeko inolako animorik ikusi”. Batzarkide taldeen arteko ezadostasunak haseratik bazeuden ere, une batean bazirudien hoherantz joango zirela. “Ni Ponentziaren presidentea aukeratu izana aurrerapausu bat izan zen. Herri





Batasunak ez baitzuen kandidatu jelkidea hautatuko, eta bai ni, orde. Bestalde, Unidad Alavesak, nire izaera demokratikoagatik, hasera hartan nire alde agetu zen. Gerora, aldiz, gauzak ez dira hala izan”.

Ez dira ez, hala izan. Gerora, UAK laguntza kendu eta presidentziatik atera zuten Victor. “Aurrerago oster, berriz ere aukeratu ninduten. Honek argi erakusten du Ponentzia honen baliorik eza. Horregatik, nire ustez, gai hain garrantzitsu bat beste maila batean landu beharko litzateke. Nire proposamena Hizkuntz Normalizaziorako Mahai bat eratzea da; alderdi bakoitzeko kide bat izateaz gain, Diputatu Orokorra izango zuen buru bezela.” Proposamen honek dakarren berritasunik garrantzitsuena honako zera da, organu hau iraunkorra izango litzatekeela, hau da, hizkuntz egoera ez legokeela une zehatz batean mahai gainean, aldioro baizik.

Egungo egoerak azterketa zehatz eta ezbidieratu bat eskatzeaz gain, berau uneorokoa ere exijitzen du, Victorren ustetan. “Arabako gizartean aldaketak ari dira ematen, eta hezkuntza sisteman ere eman behar dira. A ereduak iraun

badezake, inola ere ez egun dirauen bezela. Debaldekoka da euskara irakastea, haurrek erabiltzeko adinako oinarria jasotzen ez badute. Gizarteak aldaketak eskatzen ditu eta gizarteari Aldaketan eskeini behar zaizkio beren eskaeren araberrakoak”.

Asier Perez de Karkamo



“Gizarteari, eskatzen dituen araberrako neurriak eman behar zaizkio”

“Honelakoak izan dira nire Ponentzia kideak”

EAJ

Bere jarrera gehienetan kontsensusa bilatzearen aldekoa izan da. Halere, azkenaldian, aurrehauteskunde garai honetan, zenbait adierazpen ezegoki egin dituzte zenbait buru.

PSE

PP eta UArekin bloke españolistaz ezagutzen dena osatu dute burugogor, nahiz eta eritzi publikoari begira hala ez azaldu.

UA

Hasera batean jarrera positiboa erakutsi bazuten, ez ditut ulertu beren azkenengo erabakiak. Ez dute batere seriozki jokatu.

HB

Oso lan itxurosoa egin dute Ponentziatik kanpo geratzea erabaki zuten arte.

PP

Euskararen kontrako jarrera argia erakutsi arren, ez nuen beste ezer hoberik espero beraietaz.

EA

Hauen eta jelkideen bidea berdintsua izan da, kontsentsuaren alde agertuz.

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ


MUGABARRIK
HIZKUNTZ AKADEMIA
frantsesa • ingelesa • euskara •
haurrak eta helduak
MOLINUEVO PAREAN
13 95 86

HEGOALDE
euskaltegia

Florida kalea
58 behea
tfnoa 28 41 96
01005
GASTEIZ

CARLOS LASHERAS

Nolako idazkera, hala



AUKERA ezinhobea gaur eskeintzen dizuguna! Mendizorrotzara joaten zaren hurrengoan, zelaian ikusten diren jokalar horietako bat, ezagunago izango duzu, ia-ia laguna.



Play-off berehala dator
Aurten bai Gora Alaves

AURREZ AURRE ezagutzeko paradarik izan ez badugu ere, Carlos Lasheras-en izen-abizenak ezagunak zaizkigu arabar askori Alaves futbol-taldeko aurrelari emankorra den aldetik. Izan ere, gizon jatorra eta atsegina izateaz gain doaia berezia dauka golen bila abiatzen denean. Lanbidetik kanpo gizon

arrunta eta orekatua dela esango nuke, bere nortasunean arazo berezirik azaltzen ez direla. Futboleko aldiz, ez dago esaterik jokalar arrunta denik, ezta inondik ere. Ezaugarri apartak eta ugariak ditu. Alde batetik, oso ondo daki non dauden bere mugak eta errespetatu egiten ditu. Horrez gero, asko zaintzen du bere burua lesioetarako bide ez emateko eta beraz

sasioan mantentzen da luzaroan gorabehera haundiegirik izan gabe. Iraunkortasun haundi horrek erregulartasuna dakarkio eta hori da alegia bere doaietako garrantzitsuenetako bat. Alaveseko zaletu asko jokalar beroa eta borrokalaria delakoan daude, baina hori ez dator guztiz bat egiarekin. Carlos, oso jokalar langilea da, horretan dudarik ez, baina ez du liskarrik bilatzen beste taldeetako atzelariekin eta burua hotza mantentzea zer den ondo baino hobeto

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MIKO

izozkiak

ko izaera

daki. Horren lekukoak dira golen ugaria eta txartelen eskasia. Alde horretatik, beraz, ezin dugu jarri gure Carlos. Buyo edo Stoichkov-en parean, horiek baitira borrokalarien prototipoak. Carlosek, bestetik, jakitun da oso bere taldekideen beharrean dagoela eta horregatik elkarlana bereziki estimatzen du. Dena den, ondo bereizten du bere lana eta bere taldekideen lana. Askok eskatzen dio bere buruari eta matxaren emaitza gorabehera, lana behar bezala egiten duenean baino ez da pozik ateratzen eta hori gertatzen da gehienetan. Azeria eta maina handikoa da beste taldeen ate aurrean. Izan ere, doaia berezia dauka besteek zer egiteko asmoa daukaten antzemateko. Bere arerioen ahulezia zertan datzan ikusteko gaitasun handia dauka. Intuizio bereziko jokalaria da, klaribidentziaren jabe izango bailitzan. Batzuetan zaletuen maitasuna eta onarpenaren bila galeriarako jokatzeko emaitzen kalterako. Aurten, Castillejo aurrelari nafarra dauka lehiakide aurrealdean, baina oso ondo asimilatu du eta ez da horretaz kezkatzen. Bera prest dago beti entrenatzaileak bere lanaren beharra daukanean eta horrela erakutsi du denboraldian zehar. Primeran gobernatzen ditu bere doaiak eta hori da bere berme finkoa eta segurtasuna ematen diona. Hori ikasten laguntza ona izan du Gasteiz aldean, eta mecenaz hori eskertu beharrekoa dauka. Nere ustetan Erreala bezalako talde batean emaitza onak emango lituzke Carlosek, seigarren zentzua baitauka. Ahulezia bakarrik ikusten diot: besteen onarpenaren menpe dago. Hori dela eta, irudi ona erakutsi nahi du beti eta horretarako behar baino gehiago gastatzeko joera izan dezake.

Iñaki Gauna

ZURRUMURRUAK

ERRESPETU PIXKA BAT...

ARRATSALDE OSOA eta gozoa Mendizorrotzako Polikiroldegi paregabearen pasatu nuena! Jende gehiegirik ez baina bertan zegoena umoretsua eta adorettsua. Haiek txalo zaparradak!

Ikuskizuna "HORDAGO"koa: Munduko III Sokatira Txapelketa. Kirol emankizun honek interes gehixeago merezi zuen komunikabideen aldetik. Japoniarren kolpe bortitzak ikusgarriak ziren, berdin Irlandarren heldutasuna, Suitzarren, Holandarren edo Suediarren kuraia... eta nola ez! ...zer esanik ez euskaldunon indarra eta maisutasuna! Ez zuten etsirik aurkitu, tatarrez eraman zituzten guztiak. Aurkezleak: "Hara hor lehen goma pista gainean (hiru baitziren) Iparraldeko Napurrak eta Hegoaldeko Gaztedi taldeak aurrez aurre. Jaun-andreok saio honetan batak zein besteak irabazi Euskadik ezin lezake galdu". Jendearen oihu eta txalo artean ekin zioten lanari. Batek galdu behar eta Napurrak ezin Gaztedikoen nagusitasunarekin. Goitik behera menderatu zituen Bizkaiko taldeak. Hona berriz ere aurkezle sutsua: "Bukatu dute bere saioa eta Euskadik bi eta huts irabazi dio FRANTZIARI!!!!..." Entzun eta sinetsi ez! Txundituta utzi ninduen... Esatekotan ere, Espainiak bi eta Frantziak huts egin behar zuen esan, edo bestela Hegoaldeak bi eta Iparraldeak huts. Ipar anaieki-ko errespetu pixka bat jaunak!


Eta kirolarekin hasi naizenez, kirolarekin bukatu nahi nuke. Izan ere, nola ahaztu astelehen arratseko "Andre Mari



Zuria" enparantza jendez betea. Uholdea zirudien. Hura giroa! Zeledonen jaietsieran ere ezin gehiagorik kabitu. Ongi merezia, Baskonia Saskibaloi taldeak lortutako balentriak, herriak eskainitako omenaldi beroa. Orain bi urte hiru-garrenak, iaz bigarrenak eta aurten txapeldunak... Eta datorren urtean...? Goragorik ez dago gero...! Estatua gainditu duzue. Sinetsi eta bizi izan dugu eta Europa ere laster menderatuko duzelakoan gaude. Aupa mutilak eta zorionak!

Aspaldi honetan kirolaren erdigunerik puntakoena bilakatu zaigu Arabako hiriburua. Hala bedi!

Abel Enbeita



Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Gartzela eta intsumisioa aurrez aurre



Luis Zulaika intsumituak zenbait hilabete gartzelan pasa ondoren, esperientzia gogor horren laburpen bat egin digu. Presondegiaren laztasunari aurre egiteko, insumitu honek euskara ikasten eta irakurtzen eman du denbora ehiña.

LUIS ZULAIKAK 8 hilabete egin ditu Langraitzeko gartzelan, hirugarren graduan egon ere. Zerbitzu militarra egiteari uko egin zion, horra presondegiaren emandako egonaldiaren arrazoia. Harekin elkarriketa hasi aurretik, euskara ez duela ondo menperatzen esan digu, baina nik uste dut gartzelan egondako 8 hilabete hauek euskara primeran ikasteko balio izan diotela.

Bertako mundua oso iluna, mafiaz jositakoa, dela agertzen digu Luisek. "Hara eraman behar gaituztela esaten digutenean hileak tente jartzen zaizkigu, hor zer aurkituko dugun pentsatuz gero". Horixe gertatu zaio Luis Zulaikari. Erabat izutua sartu zen gartzelara, bertan zer izango zuen zain galdetuz bere buruari.

"Ni sartu nindutenean, ez zegoen insumitu gehiagorik. Ordurako banekien zer zen, aurrez informatu nindutelako. Halere, beldurtuta zoaz mundu berri batean sartzen zarelako.

Oso esperientzia gogorra da, batez ere, hasieran. Izan ere, bakarrik joaten zara hara eta horrelaxe ikusten duzu zure burua. Aitzitik, uneoro duzu

“Gartzela humanitate-eskolarekin alderatze dut, oso harreman humanoak eta normalak sortzen direlako bertan”



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komuniok, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industrialak

Olagibel, 64 • Telefona: 27 50 85

“ezintasuna da eramangaitzena, edozein gauza egin ahal izateko baimena eskatu behar da-eta, ez zara zure buruaren jabe, hitz batean esanda”

buruan talde edo mugimendu bateko partaide zarela. Bestalde, gartzelako gainerako presoek ez dute halako laguntasunik jasotzen. Horrela bizi izanez gero, ezintasuna eta bakardadea nagusitu egiten zaizkizu”.

Ezintasuna eramangaitzena

Ezer baino, ezintasuna izan du eramangaitzena Luisek, presondegian eman duen bolada luzean. “Edozein gauza egin ahal izateko, baimena eskatu behar da: ez zara zure buruaren jabe. Gainera, gartzelan funtzionarioak jaun eta jabe dira, jatorrak izanez gero, ondo, bestela... jai”. Intsumitua gartzelaren baldintza txarrez kexu azaldu da. Izan ere, hiru pisuko gartzela batean egon da Luis, eta bertatik presoak ezin dira atera. Oso leku txikian bizi behar izaten dute.

Zulaikak kontatu digunez, asperdura dute etsairik amorratuena. Bigarren gradu-koentzako ekintza batzuk antolatzen dira; hirugarrenean daudenentzat, berriz, ezer ez. “Zenbait presok beren bizitza antolatzen dute gartzelan dituzten aukeren arabera; gure sailean, oster, ez dago ezer. Hortaz, norberak bilatu behar du berarentzat egokiena dena”.

Goizeko zortzietan preso guztiak zenbatzen dira ea baten batek ihes egin duen. “Hortik aurrera, presoek antolatu behar dute beraien txabolatxo, gosaldia... eta ordu bata t’erdiak arte ez dago ezer; bazkaldu ondoren ere, edozer gauza egiteko denbora dago.”

Beraz oso erraza da horrelako batean monotonía eta asperduraren morroitzan erortzea. Zulaikak, berriz, esan digu aspertzeko astirik ez duela izan. Bere ustez, abantaila handiak ditugu gaur egun, ondo pasatzeko tresna pilo bat dugulako (liburuak, margoak...). Presondegian, esaterako, telebista bat dago, joku batzuk eta ping pong-eko gela bat, normalean jendeak erabiltzen ez duena.

“Goizetan nik euskara ikasten, irratia entzuten eta garbiketak egiten ematen nuen denbora. Bazkaldu ondoren,



“intsumisioaren bidez esperientzia berriak ezagutu ditut; oso aberasgarria izan da, alde horretatik”

egunkariak eta kartak (600 inguru) irakurtzen nituen. Gero, bisitak egonez gero, horretan ematen nuen denbora. Bestela, irakurtzeari ekiten nion aspertu arte. Asko irakurri dut”.

Gartzela gizartearen ispilu

Beste presoekiko harremanei buruz galde egin diogunean haxe erantzun digu: “Langraitzeko gainerako presoekin oso harreman onak izan ditut, orokorrean esanda. Denetarik dago: batzuekin oso ondo moldatu naiz; beste batzuekin, ez duzu harreman handirik izaten; eta bakan batzuei ez diezu begiratu ere egiten”.

Zulaikak adierazi digunez, presoek, azken finean, talde bat osatzen dutela eta horretan ere, beste edozein taldetan bezala, era guztietako harremanak eratzen direla. Oso lagun onak utzi omen ditu barruan eta haien bizitzaz pilo bat ikasi du, antza. “Gartzela humanitate-eskolarekin alderatzen dut, oso harreman humanoak eta normalak sortzen direlako bertan. Preso askok arazo pertsonal handiak dituzte; fisikoki eta psikikoki gaixorik daudenak ere ez dira gutxi”. Horrek argi uzten du gartzela mundu ezezaguna dela askorentzat. Kanpotik ikusita, pentsatzen dugu mundu baztertu eta beltza dela non gizartearen sektore batzuentzat baino lekurik ez dagoen. Baina errealitatea oso bestelakoa da. Zulaikak adierazi digunez, iritzi oker hori oso zabalduta dago. Azken aldi honetan gartzelaratu dituzten jaun txit agurgarri horiei erreparatzea besterik ez dugu! Bukatzeko, Luis Zulaikak salatu nahi izan du gizartearen preso sozialekiko duen ajolagabekeria: “Denok onartzen dugu gartzelan denetarik dagoela, preso gorrotagarriak, bortxatzaileak eta halako jendea. Baina gogorra da ikustea gizartearen ihardueraren ondorio direla. Beraz, aldatu behar duguna gizarte bera da”.

Susana Calleja

J A T E T X E A


Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
 •GASTEIZ

 **Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Martzelo Lopez de Arana

1.963AN JAIO zen, abenduaren 21ean. Sagitario da horoskopoz baina ez du egunkarietakorik sinesten. Guztiz bat dator dagokion nortasunarekin. "Amorratuak gara hanka sartzen, eta konpondu nahi dugunean, gehiago hondatzen dugu. Ahoa beti hitzez beteta daukagu". Berritsuak, eta irekiak ere bai.

Gasteizkoa da. Lubianokoa zuen aita. "Orain herri famatua da, autobidea ondo-ondoan pasatzen baita". Narbaxakoa du, berriz, ama. "Herri mundiala. Hitzegiteko era berezia dute; erdaraz hitzegiten dute baina euskal kalkoak dituzte: *achunarse* esaten dute, erdarazko "hortigarse", edo *come las hondarras*, adibidez". Elena emaztearekin bizi da duela zazpi urtetik hona.

Adurtzan bizi dira, nahiz eta zehaztu duen hori Marzelok: "ez naiz bertan geratzen, pasa besterik ez; etxetik oso gutxitan ateratzen naiz".

Primeran moldatzen den euskaldun berri horietakoa da.

Ingeles irakasle da, etxean. "Errentagarri ez balitz ez nuke jarraituko". Daraman bizimodua gustatzen zaio "neure jefea naizelako, eta neure erabaki propioak hartzen ditudalako".

Kirola du afizioa, eta musika entzutea, lasaia batik-bat.

Irakurtzea ere gogoko du. "Eta lasai egotea". Gehiagotan joan nahi luke mendira; horrexek poztuko luke.

Hogeitaka aldiz atera du bere lekutik sorbalda hezurra. "Hogei aldiz, gutxienez". Besterik da orain arazoa. "Burukoa, zeren beldurra barrutik geratzen zaizu".



DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Ez daukat asko, baina kafea da bat. Beste bat, telebistan kirola ikustea inolako neurrik gabe. Batzuetan horrek arazoak ekarri dizkit, baina poliki-poliki hori ere konpontzen ari gara, zahartzen ari gara eta...

ETA BERTUTEA?

Edonorekin hitzegiteko prest egotea, edozertaz eta mugarik eta beldurrik gabe. Ez edonoren aurrean, lagunaren aurrean baizik. Agian, gaur egun, beldurra sentitzen da.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Ziur aski lan gehiago, bakea, eta ustelkeria gutxiago. Eta hemen, Euskal Herri euskaldunagoa edukitzea.

ZER ESKATZEN DIOZU ZUK ZEUK BIZITZARI?

Orain bezala jarraitzen badu, conforme naiz.

ETA ESKAINI?

Eguneroko lana batez ere. Lo ez geratzea. Batez ere, gauzak poliki-poliki egitea; horrela, ondo ateratzen dira.

GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA ALA VITORIA-GASTEIZ?

Erdaraz hitzegiten badut, Vitoria. Euskaraz, Gasteiz. Eta Vitoria-Gasteiz,

konpromezuzko forma denez... baina ez zait ateratzen barrutik, ez da praktikoa eta ez dut uste etorkizunik duenik. Baina politikariek erabiliko dute...

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Dirudienaz gauza askok. Batez ere jendearen pasibotasunak, eta ezikusaren egitea: konpromezurik ez hartzea errazago da.

ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Egun hauetan, osasuna, nahiko jota nago eta. Etorkizunean, alemanez primeran hitzegitea, emaztearen dantza-taldea aurrera ateratzea, eta auskalo!, seme-alabaren bat izatea, baina ez etorkizun hurbilean.

GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai. Primeran iruditzen zait. Izotza apurtu dute eta hori oso zaila zen Gasteizen. Lehendabiziko pausoa eman dute eta hortik aurrera gauzak berez aterako dira. Espero dut. Zaila da baina hasiera egin dute.

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Ez, baina bart ikusi nuen "Simpson-darrak", eta harritu ninduen, oso ondo pasatu nuen.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

Boladaren arabera. Lasai egoteko, deskantsatzeko... agian, diru aldetik posible baldin bada, bidaiaren bat egiteko, leku berriak ezagutzeko, esperientzia berriak edukitzeko. Horrek aberasten gaitu ezta?

NONGO EUSKARA DA ZUREA?

Antzinako Gasteizko AEKko euskara batua, zehatz-mehatz. Haiei zor diet ikasi dudana guztia, zeren oso ondo ikasi nuen, oso gustora. Ez ziren profesionalak baina profesionalak baino hobeto ibili ziren, primeran. Duela sei urte edo izango da.

FILMEREN BAT?

Azken bolada honetan ikusitakoa: "Tierra de penumbra".

AKTORE IZENIK? (GIZONEZKO NAHIZ EMAKUMEZKO)

Anthony Hopkins. Parte hartu zuen Oxford-en filmatutako pelikula horretan.

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Asko eta asko. Batez ere gure amaren herrian pasatako udak, Nabaxan.

ZEURE GORPUTZ ATALIK POLITENA?

Horrek esan nahi du neure buruari begira egon naizela, ez? Agian nire bernak, hankak.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Egunero berritu behar ditugu ilusioak. Mundu guztirako, bakea. Natura gorde behar dugu eta geure bizitza salbatu behar dugu, zeren pikutara goaz. Ilusio asko, baina horiek guztien gainetik.

GIZARTE ARLOAN, ZER ALDATUKO ZENUKE?

Errespeto handiago izango bagenu eta heziketa handiago, gauzak hobeto aterako lirakeke, baina ez dago errespetorik eta heziketarik ere ez, eta beti elkarren kontra gaude.

MUNDUAN DEN DENBORA GUZTIA IZANEZ GERO, ZER EDO NORA; EDO ZERTARAKO?

Beldurra ematen dit, nahi dudana denbora guztia edukitzea. Uste dut hasieran gauza asko egingo nituzkeela, baina gero aspertuko nintzatek. Hasieran bidaia luze eta zoragarriak egingo nituzke, baina gero,



ziur aski, ez nuke horrelakorik egingo.

LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?

Aspaldian irakurri nuen bat: "The Sound and The Fury", William Faulknerrek idatzitakoa eta eragin handia izan duena. Irakurtzeko primerakoa iruditzen zait.

IDAZLEREN BAT?

Ez da irudimen handirik behar Bernardo

Atxaga aipatzeko baina aipatuko nuke. Erdaraz, Miguel Delibes asko gustatzen zait. Eta ingelesez, Shakespeare, gozatzekoa da.

IDOLOREN BAT?

Miguel Indurain, dudarik gabe.

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA? ZER DUZU EGUNEROKO ERAGINGARRI?

Ni beti aurrera begira saiatzen naiz. Horrela, konturatu gabe, egunak igarotzen dira eta aurrera egiten dut. Ez dago sekreturik.

ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ ESATEA ZU HIL ETA GERO?

Hori galdera gogorra da! Guztiekin hitz-egiteko gai izan naizela, entzuten ere dakidala, eta nahiz eta eritzi ezberdinetakoa izan, geure arteko harremanak onak izan direla.

Miel Anjel Elustondo

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lentine abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna. Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA.



Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ




KILOMETROAK: K. M.

ARABA TXAPELDUN • INSTITUTO FORAL DE
ADURTZA AUZOA • INGENIERITZA • UDALE
BATASUNA • EUSKADIKO KUTXA • EUSKAL TAL
COCODRILO • GARAZI • LARRI • LAROSA • BAC
TXAPELARRI • XURRUT • AREITZAK • BODEGON
TXINBO • BOTXO • LA UNION • FUEROS • ZAZPIA • A
LA FLOR DE LA RIOJA • ALISAS • PANTXIKA • KARR
BASTIDA • VITRALES DELICA • VENTANAS STILL • SERCON
GARNICA FERRETERIA • EZPELETA • MASTER ELEK. • KELDI
• MUSIKAL ALDAVE • TANAKAS • NORESTA MUGA • KOGI
OSASUN OKATI KIROL • GAIKAR KIROLAK • TROPHY KIROLDEN
LANDHER KIROLGAIK • JEI KIROLAK • AZOKA KIROLGAIK •
TXIKIAK • CONFEC. PINEDO • SARTU • ELKARTASUN DENDA • LARRI
LETAMENDIA ETA KONTXI URRRA • EDERKI • IKATZ • FOURNIER • BO
TXEMA GOMEZ DE SEGURA • JOSE RAMON FERNANDEZ • STELA • I
ARANTZA ILEAPAIN. • GORETTI ILEAPAIN. • ITURBE INPRENTA • DORLETA I
EULATE BITX. • YURRE BITX. • KIMEN LANPARAK • BLANKA GOMEZ DE SEGU
EL ZAGUAN DE LOS DETALLES • PERFUMERIA MANOLO • SEX SHOP POPPERS •
• ESTANKOA KUTXI 25 • ESTANKOA FRANTZIA 7 • ESTANKOA MAITE ETA JABI M
ZULOA • CARUSO • HERRIKOIA • LA REVISTA • ARDATZ ITZULP. • ALBENIZ L
GALTZAGORRI • CENTRAL • ALDANONDO • GARAZI • ORRATZ • LESTER • SOR
TABERNA • ALDAPA • SOINULARI • DAKAR KAFET. • J.J. BOLERO • DE CINE BIDEOD
• MANOLO HARAT. • SANTI AIZPEOLEA HAR. • OJANGUREN HAR. • XABIER AIZ
ROMAN • URIZAMARRAKO OKIN. • ARTZINIAGA HAR. • ORIO ITSASK. • BACA
GAZTELURRUTIA ARDOAK • UNION DE COSECHEROS DE RIOJA ALAVESA • HERRIK
CLUB DEPORTIVO VITORIA • ARABA EUSKARAZ • FRUTOS SECOS URIARTE • TETERIA
GUERENU • PAST. MARIAN • PAST. TXISTU • PAST. JESUS • CONF. AMAYA • CONF
BLUSEEN ELKARTEA • GURE TOKI • BRETON • MARUTEGI • LA RIOJANA • CEGAS
OLEAGA • IÑAKI • KINTANA • PORTALON • DOS HERMANAS • KLAKE TABERNA
SOKOA • IRUÑA • TEXAS TEX-MEX • CONDE DE ALAVA • IZARRA JATETXEA • TOM
HILARIO LLANOS • JAVIER AIZPEOLEA • MAGDALENAS MARISOL • FRUTERIA GON
ABETXUKON: CARRETERO • PEPI ILEAP. • BROCENSE • MUSIKA • MERKE • AUZO-ELK
• ROSA M^º • GATECA • M^º JESUS • GEMINIS • MAURO ETXEA • LA SALA • M^º U
BASOCO • GURE TXOKO • MARUSAN • LEMOS • MARJOS • PAKITA • LAMBDA • L
MAIKA • MAIS • ARTETSU • ZAPATADENDA • ABERASTURI • BURNIBIDE • DONOSTI
EGOKI • KANTOI • EHARI: EGINO • AUERRERA • ALAIK2 • BARRIOS • DECOFEL • NIE
ARABA • IRIS • CAPELLAN • LAKUAN: ARANTXA • ANCORA • NOEMI • JARIUSA • H
• MARI • KEROS • ARRIAGA • LORETO • DISEIRA • LOISSIANA • JUANAS 39 • CAN
EDU • LYDIA • ZAPATEGIA • TXAKAL • LLOYA • AITOR • EROSLE • JADE • SON
TITANLUX • EL VALLE • IBAÑEZ • GOARTE • ALDEKOA • YAZAR • ARREGI • COEL
• ARBULO • RAZKIN • CLIO • GOLDEN GATE • IZARRA • TELE CONFORT • M^º U
INVERNADERO • IRUÑAKO • BAROJA • DALLAS • RAMOS • ARIADHA • AND
ERENTXUN • ERROTA • MK • FORONDA • MI TABERNA • LOPEZ • SUHARO •
SAMBA • ISUNE • IÑIGO • KRISTINA • IMAGEN2 • YOLI • ALASKA • CENTA
AVENIDA • PORKY • JOSE LOPEZ • CODEX • ZUREA • IKUSTOKI • COBY • C
• ACHAERANDIO • DASE • HERMES • ISIS • MIRO 92 • BOST • ERIKA • R
FASPRINT • ELLA-EL • BENGUA • LEVEL • ESTANKO35 • MAG PHILDAR • M
ARRIAGA • M^º ANGELES • GOTZONE • ARGOTE • MARIAN • EDUARDO
TXEMA • DORI DEL OLMO • ITXASNE • LABERINTO • DIMENSION • EZKE
STENDHAR • LA CASA DEL ACEITE • NEKANE • OLATZO • LA HUERTA
PENTAGRAMA • LARRU • MARI JUAN • ZAPA11 • SKULLS • BILDUMA •
LA PEÑA DULCE • LOS ARCOS • YOLANDA • JON BILBAO • MARC
MATEOS MONREAL • GUBY • M^º ANGELES • GARMENDIA • AMILAR
PARRAL • BIASTERI • HAMER • ALBENIZ • 70 • IOAR • TXO • KANI
TREBOL • PITXER • LONJA • SANTA LUCIA • MARIXA • ELEJALDE •
ALDANONDO • KOLDO • INTXORTA • AMERICA • TELAS AL PES
WALDO • MAJUELO • ARANTXA • MIZAR • ILARGI • PORTOC
ETXEBARRIA • EL CRUCERO • PASCUAL • EGUREN • TXINTXO
BOMBAS Y SUMINISTROS • TERE • ADELA • GAONA • ARIZM
BARRON • LARSEN • OTADUY • ROSI • SANCHEZ • MOJON •
ETXEBE • NORTE • ARRAINDEGIA • IDAZMAKINAK • MANO
NABOIS • RIDER • JOTAEME • IGLESIAS • LUKEN • VERIN •
RUBIO • TRAGAS • PILAR: AGROARABA • TODO A CIEN •
MAYBAN SA • OSCAR • GOMEZ • DE LA TORRE • IZAR
MICHELIN • NIZA • MARDI • SOJO • CHELO • H. DEL JP
ALONSO • VALVERDE • SERME • JOSEBA • BASILIO • J
YMARO_S • UDALA • LOS TONELES • UNIVERSAL • ETXEBAR
CACERES • ETA BESTE ASKO ETA ASKO, IZAN ERE, SEGURU B

eskerrik a

San Prudentzio eguna non, perretxikoak han



SAN PRUDENTZIO egunean, perretxikoak jateko ohitura oso zabaldua dugu Araban. Hori dela eta, hamaika lagun abiatzen dira zelai eta basoetan zehar San Prudentzio eguneko jaki preziatu hori dohainik eskuratu nahirik. Sasietan, zuhaitzen babesean edota beste nonbait asko ibiltzen dira bila; etxera asebetarik bueltatzen direnak, berriz, askoz gutxiago. Izan ere, perretxikuak ez dira nonahi sortzen, eta gainera, azken bolada honetan, gero eta perretxikozale gehiago ikusten da zelarik zelai eta basorik baso. Beraz, etxetik irten aurretik, komenigarria da leku aproposak non diren jakitea, alperreko bidaia ez egiteko. Eta jakina, gero ez zaio mingainari gehiegi eragin behar, hara bueltatu nahi bada inoiz, perretxiko gehiagoren bila.



Hamabi urte zituenetik, Rafa Otxoa ibili da mendian. Gizon jaioa dugu, beraz, horrelako zereginetan. Mendian zehar egiten dituen txangoaldietan, perretxikuak hartu ezezik, beste motatako onddoen bila ere aritzen da. "Mendian ibiltzea asko gustatzen zait, gainera, horrela izan behar du derrigorrez, batzutan ordu luzeak eman behar izaten baitira perretxiko kilo bat hartzeko".

“ Hemengo perretxikoak Burgos edota Soriakoak baino askoz hobeak dira ”

San Prudentzio eguna gainean dugularik, aurtan ere marraskiloak eta perretxikoak datozkigu hizpidera. Egun hauetan, marraskiloak harrapatzea ez omen da oso zaila; perretxikuek, aldiz, ez dute hainbeste erraztasun ematen, horiek leku jakin batzuetan baino ez baitira aurkitzen. Gainera, garai honetan perretxikoen prezioak gora egiten du nabarmenki. Baina, leku hezeetan sortzen diren jaki horien atxakian, Rafa Otxoa perretxikozalearengana jo dugu.



e
g
u
n
e
k
o

m
e
n
u



BAR ESTITXU

PINTORERIA GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna



Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

Rafa Araban ibiltzen da gehien bat: Agurainen eta Opakuako mendatean. Alabaina, Urduñara ere hurbiltzen da inoiz bere zaletasunari segida emateko. Batzuetan, aspalditik ezagutzen dituen lekuetara joaten da, hor zer harturik izango duelakoan. Askotan, ordea, Rafaren ibilien berri ez duten mendietara hurbiltzen da, ea perretxiko-eremu berriak aurkitzen dituen. Asteburuak aprobetxatzen ditu bere zaletasunari lotzeko, baina berak aitortu digunez, "larunbatetan eta igandeetan jende gehiegi ibiltzen da menditik. Horregatik, hobe da astean zehar joatea, inork ez ikusteko non dauden perretxikoak; gainera, nik nahiago dut nire kasa ibiltzea, ezin baitzara inorekin fidatu".

Perretxikoen prezioa gora

Perretxikoak hartzeko tenorea apirilaren lehen astetik maiatzaren azken astera arte izaten da. "Martxoaren amaieran hasten dira sortzen. Dena dela, aurtien euri

“**Perretxikoen
bila ari zarela saiatu
behar duzu inork ikusi
ez zaitzan**”

gehiegi egin du, eta beranduago ernatu dira. Perretxikoak erruz hartzeko maiatzaren lehenengo bi asteak dira aproposenak, pilo bat ateratzen baita orduan".

Kiloa hamabost eta hamazortzi mila pezeta bitartean saltzen du Rafa Otxoak, Oleaga jatetxean saldu ere. Dena dela, San Prudentzio eguna pasata, prezioa asko jeisten da. Hilabete honetan, 125 mila eta 150 mila pezeta bitartean irabazten du Otxoak. Baina, perretxikuen prezioan gorabehera handiak daude, beren kalitatearen arabera. "Gorringo" izenekoak dira onenak.

Gure azokan, hemengo perretxikoak ezezik, kanpokoak izaten dira salgai: "Asko eta asko Soria eta Burgosetik ekartzen dituzte, baina hoberenak, dudarik ez, hemengoak dira; kolore, sapore eta usainari dagokienez, ez dute inongoekin alderatzerik". Bestalde, perretxiko onak erosteko, gaian izan behar da jakitun, askotan plazan saltzen direnak txarrak eta garestiak izaten direlako".

Arropa egokia soinean

Perretxikoen bila joateko, eguna ezin da nolanahikoa izan. Eguzkitsua bada, oso



zaila izaten da perretxikoak ikustea. Egun lainotsuak hobeak dira horretarako. Jantziak ere ezaugarri jakin batzuk bildu behar ditu. "Esaterako, ezin zara joan soineko gorri bat jantzita; oso deigarriak ez diren koloreak aproposagoak dira, berdea edo marroia, adibidez. Oso garrantzitsua da perretxikoen bila ari zarela, jendeak zu ez ikustea".

Zintzotasunaren zintzotasunez, perretxikoen gotorlekuak non diren galdetu genion; alperreko ahalegina, halere. "Gauza bakarra esango dizuet; perretxikoak dauden lekuetan belarra ilunagoa izaten dela. Baina perretxikoak topatzeko asko ibili behar da, eta ondo ezagutu behar da ingurunea. Batzuetan ordu asko eman behar izaten dira bat ere ez topateko agian; beste batzuetan, aldiz, bost minututan kiloak hatzematen dira".

Beraz, zaila da perretxikoen mundua ondo ezagutu gabe, uzta oparoa jasotzea. Dena dela, San Prudentzio egunean ahoa bete perretxikoekin ibiliko gara. On egin!

Itziar Mtnez. de Santos



bar • restaurante •
Portal del Rey 9
GASTEIZ
albéniz

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

Maite Ruiz de Austri

Walt Disney gasteiztarra



Walt Disneyren filmeek adin guztietako ikusleen artean arrakasta handia lortu dute aspalditik.

Halere, ikusgai diren marrazki bizidunetako pelikula guztiak ez dira Estatu Batuetan egin, ez eta hurrik ere; Gasteiz ere horrelako filmeen iturburu emankorra da. Gure hirian erabat mamitu eta ekoiztu diren bi filme, "Ipar haizearen errorra" eta "Ipar haizearen itzulera", ospe handiko sariak lortzeaz gain, hamaika hiritako lagunen ikusgarri eta gozagarri izan dira

"IPAR HAIZEAREN ERRORRA" eta "Ipar haizearen itzulera" filmeetako lan taldeak ondo baino hobeto hasi du urtea. "Ipar haizearen errorra" pelikula urtarri-lean estreinatu zen Paris eta Frantziako beste bederatzi hirietan. Parisetik bueltan, Cartagenarantz abiatu ziren bertako jaialdiko saria jasotzeko. Maiatzean, bestalde, "Ipar haizearen itzulera" filmeak Goya sari garrantzitsua lortu zuen.

Horrez gain, duela gutxi "Ipar haizearen errorra" oinarritzat harturik, telesaila burutu dute; izen bera izango du ekoizpen berriak. FORTAK, telebista autonomikoe-

tako elkarteak, erosi du jadanik telesaila. Beraz, ETBn ikusi ahal izango dugu urte honetan bertan. Bi filmeetako materiala bat eginagatik ere, ez da nahikoa izan telesaila sortzeko. Hortaz, jatorrizkoari minutu batzuk erantsi behar izan dizkio Maite Ruiz de Austriren taldeak. Aitzitik, pozik geratu da egindako lanarekin: "Hamahiru atal besterik izan ez badira ere, ezin dugu sinetsi ere egin bukatu dugunik!"

Maite Ruiz de Austri produktore arabarrak esan duenez, "ilusio handia egiten du sariak jasotzeak baina zera da oraindik garrantzitsuagoa: zinemagintza-aren banaketa-sarean sartzea". Izan ere,

"marrazki bizidunen arloa izugarri zabala da"

latza egiten zaie marrazki bizidunetako filmei aretoetara iristea. "Estatu Batuetako produkzioekin ez dago lehian iharduterik, horiek ikaragarritzko publizitate kanpaina dutelako atzean. Zinematokietako jabeek ez dute arriskua atsegin eta oso zaila da hemengo pelikulen aldeko apostua egiteko prest dagoenik aurkitzea", adierazi du Maitek. Zailtasunak zailtasun, bidea gero eta argiago dutela uste du. Horrek, dudarik gabe, marrazkigilearen lana erraztu eta hobetu ere egiten du, Maitearen iritziz.

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

★
IZ
TABERNA
ARRA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



IRUNA
TABERNA

HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

Kulturaren munduan aritzen diren gehienek bezala, instituzioetatik datozen dirulaguntzekin kexu agertu da Maite ere. Kexa, gainera, ez da batere originala, bere eguneroko ihardueran eragin handia du, halere: "Madrilen aurkezten diren dirulaguntza eskaerak begiratu ere ez dira egiten. Horregatik, hemengo zinemagintza independenteak aurrera egin dezan nahi badugu, ezinbestekoa da bide berriak urratzea. "Ipar haizearen erronka" plaza-ratzeko Vital Kutzarekin izan zuten esperientzia izan daiteke konponbideetarikoa bat. "Hitzarmen horri esker, Arabako eskolako haur guztiek ikusi ahal izan zuten pelikularen euskarazko bertsioa. Vitalekoen jarrera oso ausarta izan zen eta orain, Es-tatuko beste hainbat hirietan eredutzat hartu dute Gasteizen egindakoa".

Aukera ezin hobea

Oztopoak oztopo, Maitek, bi aldiz pentsatu gabe, animatzen ditu gazteak mundu horretan buru belarri murgiltzera. "Beste arlo batzuetan, lagun gehiegi aritzen direla eta profesionalak berregokitu behar direla dioten bitartean, arlo hau izugarri zabala da lanerako gogoia duten gazteentzat". Izan ere, marrazki bizidunetako profesional bikainak daude Euskal Herri osoan. Baina, beste arlo batzuetan bezala, azpiegiturak ez daude oso garaturik gurean.

"EPISA lehenengo filma egiten hasi zenean, Araban ez zegoen horrelako lan serio bat egiteko langile nahikorik. Udalaren laguntzari esker, gurekin batera, gazte batzuk prestatu ziren, lan osoa hementxe bertan egiteko, alegia, pelikula bat Gasteizen hasi eta bukatu ahal izateko. Gazte horiek guztiak lanean daude gaur egun", adierazi digu Maitek harro-harro.

Marrazkiegileen arteko lana koordinatzea da EPISA bezalako enpresa baten eginbeharra. Hori ez da beti erraza izaten. Langile asko dituzten enpresekin lan egitea samurragoa da ekoizle gasteiztarren ustez, "20 lagun lanari buruz pertso-

na bakar batekin hitz egin behar baita. Halere, langile horietako askok ez dute taldeetan lan egin nahi eta, horren ordez, bere kasa aritzea nahiago izaten dute". Artisten izaeraren bitxikeriak, nonbait.

Gero eta jarraitzaile gehiago dute marrazki bizidunek. Horra arrazoia Maiteren irudiko: "Alde batetik, lehen "haurrentzako filmetzat" jotzen ziren horiek orain adin guztientzako jendearen gustukoak dira; bestetik, helduentzat propio pentsatutako produkzioek gero eta eskaera handiagoa dute. Dagoeneko, marrazki bizidunak ez dira haurrentzako gauza soilak".

Taldean edo bere kasa lan egiteko gogoia duenak horretarako aukera izango duela azpimarratu nahi du Maitek, horretan oztopoak ez direla gutxi izango onartu arren: "Merkatuak lan guztiak onartu eta irentsi egiten ditu. Alde horretatik ez dago

dagoeneko marrazki bizidunak ez dira haurrentzako gauza soilak



arazorik, beraz. Baina zinematokietara irits dadin, lana ekoiztu egin behar da. Horretarako, dirua behar da, jakina". Instituzioek ezer gutxi laguntzen diote zinemagintzaren alor horri. Era berean, telebistek ere ez dute ezertxo ere egiten produkzio independenteen alde, "ezetzik ere ez dute esaten, baina, bukatutako serieak erosten dituzte marrazki bizidunetan txakur txikirik ere xahutu beharrik ez izateko".

Etika eta kontraesanak

Haurrentzako telesailek jaso dituzten kritikei buruz galdetzeari derrigorrezko iritzi diogu. "Bazen garaia kritikatzeko hasteko!" jaurtiki du Maitek bizi-bizi. Hala ere, bi produktu mota ezberdinak behar direla argi utzi du. Produkzio industrialak dago batetik, "horrek ez ditu umeak aintzat izaten pelikulak egiteko orduan, bost axola berari. Kalitate gutxiko telesailek izaten dira, diru asko mugitzen dutenak, halere. Jostailu jakin baten publizitate kanpaina egitea izaten da serie horien helburua. Ezpatak, pistolak..., a ze jostailuak!". Bestetik, produkzio independenteak daude. Horiek lan gutxiago sortzen dute; kalitateari, berriz, arreta handiagoa eskaintzen diote. Mezua oso zaintzen da, haurrengan izan dezaketen eragina kontuan izanda.

Jokabide horren inguruan zabaldu den moral bikoitza salatzen du Maite Ruiz de Austrik, "telebista guztiek etikari buruzko akordioak sinatzen dituzte eta, aldi berean, jostailuen etekin politak poltsikoratzen dituzte".

Leire Lopez de Aberasturi

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Judimendi: Judutarren aztarnak

JUDIMENDI AUZOAK San Juaneko festak eta txikiteoan iharduteko giro aparta ezezik, judutarren agerikeriko eragina ere du nabarmengarri. Erdi Aroan judutar asko bizi zen Gasteizen, Juderia kalean. Errege-Erregin Katolikoek, berriz, 1492ko martxoan, Granadaren konkista bukatzeaz bat, judutarrak kanporatzeko agindua eman zuten. Halere, judutarrei aukera bat eskaini zitzaion hemen gera zitezen: kristau bihurtzea. Uko egin zioten. Besapean dena eraman ezin zutela eta, Gasteizko alde horretako batzordeari beren hilerria (gaurko Judimendi parkea) eta Sinagoga eman zizkieten. "Judimendikoak" auzo elkartera jo dugu Zuzendaritza Batzordeko kidea den Koldo Kamonekin solasalditxo bat izan dugula. Judimendi auzoan murgiltzeko prest bazaude, erne egon berak esan digunari!



handiena. Kostata baina azkenean gela batzuk eskuratu genituen. Eta horiek ditugu, hain zuzen ere, hemengo taldeek orain erabiltzen dituztenak. Gaur egun, kultura eta hirigintza ditugu arazorik nagusienak. Horrek ez ezik, Judimendi parkearen egoera penagarriak ere arduratzen gaitu. Bestetik, gure kaleak bere egiten dituen kotxe trafiko ikaragarriari ere ez diogu izkin egiten. Gure ustez, trenbidearen lehengo lekua, Jose Mardones kalearen aurrean, hain zuzen, aproposa da aparkaleku bat egiteko. Baina hori Udalaren kontuak dira. Droga trafiko pittin bat ere ba omen dugu hemen, zoritzarrez.

KUADRILAN IBILTZEKO ETA POTEATZEKO GIRO IZUGARRIA DAGO JUDIMENDIN. BERRIA AL DA HORI?

Ez, nik betidanik ikusi izan dut hemen giro ona. Hori dela eta, koadrila asko ibiltzen da gurean. Poliki-poliki ospe handia bereganatu dute hemengo tabernek. Gainera, gureak dira Gasteizko jairik garrantzitsuenak, auzoen mailaz ari naiz. Beren arrakastaren giltzarriak bi dira: 'bata, oso egun onetan ospatzen direla, Ekainean

NOIZ ETA NOLA SORTU ZEN JUDIMENDIKOAK AUZO ELKARTEA?

Nik uste dut gure auzo elkarte Gasteizko zaharrenetarikoa dela. 1976. urtean sortu zen, Franko hil eta berehala, beraz. Handik aurrera, ekintza piloa antolatu dugu.

AUZO ELKARTEAREN IBILI LUZE HORRETAN, ZEIN ARAZO AURKITU DITUZUE?

Hasieran, orain dela hogeit bat urte, alegia, aretoak lortzea izan zen gure buruhausterik

BIZTANLEAK: 8000 gutxi gorabehera.

MONUMENTOAK: Udalaren eta juduen artean sinatutako akordioaren omenez egindako monolitoa (Judimendi parkea).

BERDEGUNA: Judimendi parkea.

ELKARTEAK: San Juan eliza eta gizarte-etxearen inguruan antolatzen direnak. Horiek ezezik, badaude zenbait musika eta antzerki talde ere.



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ

giro ezin hobea!

MOTRIKO TABERNA
PINTO, 16 - GASTEIZ



bisita gaitzazu!

a Gasteizen txertaturik

badakizu; eta bestea, gure auzoko suteak ikusgarriak izaten direla.

EMANGO AL DIZKIDAZU ZUEN AUZOAREN EZAUGARRIAK HIRU HITZETAN?

Betidanik auzoa dugu gurea. Gainera, biztanlerik gehienak arabatarrak edo gasteiztarrak dira. Nahiz eta etorkin asko egon, ezin da alderatu, esaterako, Zaramaga edo Arana auzoekin. Eta, jakina, gure jaiek ere gainerako auzoetatik bereizten gaituzte.

ZER ESANGO ZENUKE EUSKARAREN EGOERARI BURUZ?

Euskaraz hitzegiten duen jenderik egon badago, Gainera, Jose Mardones kalean euskaltegia ireki zutenetik, euskara gehiago entzuten da kalean. Auzo elkar-teak horren aldeko apustua egin du, euskarazko ikastaroak dohainik emanez.

Judimendi aldizkaria bi urte kalean

Auzo elkartekoek bi urte daramatzate "Judimendi" aldizkaria argitaratzen. Judimendiko auzokideen ekimenez, argia ikusten du aldizkari horrek; maiztasuna: ale bat hiru hilabetetan. Auzoko komertzio eta denden laguntza ekonomikoari esker kaleratzen da. Oraingoz euskararen erabilera txikia bada ere, apurka-apurka haundituz joango dela adierazi digute berek.



EZ DA ERRAZA "Lore etxean" edota "Beti gazte" abestiak ahaztea. Seguru asko, kanta bikain horiek sortu zituen taldearen izena ez dugu gogoratzen. Agian, Balerdi Balerdi-k bere lan paregabea eskaintzen digula jakiteak ez du inolako eraginik sortuko musika-merkatuan. Nolanahi ere den, talde nafar horrek duela hiruzpalau urte argitaratutako diskak atseginenez hartu genituenok bihotzez eskertzen diegu beren lana. Diska horietako kantak berriak eta freskoak dira, atzoko, gaurko eta biharko musika lau haizeetara zabaltzen dutenak.

"Ez gara galdu" ez da egun hauetan merkaturatu, ez da labetik ateratako opil berria, beraz. Durangoko liburu eta diska azokan aurkeztu zuten LP hori; hasierako freskotasunik, ordea, ez du galdu, geroztik egun dexente igaro den arren.

Zarak, Blancak, Toñok, Marinok eta Patxik osatzen dute Balerdi Balerdi taldea. Dudarik gabe, asebetarik egongo dira lortutako emaitzarekin. Musika arloan behin baino gehiagotan agertu duten trebetasuna ezezik, jaso duten laguntza ere aipagarria dugu, hona izen batzuk: Javi "Aupa-legi" eta Elortza (Jotakie taldearekin ibilia) abotsean, Batiz-en hatzamarrak kitarraren mastila zeharkatzen zehaztasun osoz, eta Josu Monge-ren perkusioak.

Balerdi Balerdi: "Ez gara galdu"

Bateria, teklatuak, baxua, kitarrak eta ahotsak dituzue Balerdi Balerdi boskotearen doinu enborra; perkusioa eta armonika, berriz, adarrak; eta, azkenik, mandolina eta akordeoia, loreak. Zuhaitz sendoa, mardula eta berezia; bakarti eta dotorea. Eskasa.

Hamalau fruitu aurtengo uztan bildutakoak: hamalau abesti. Kanta bat ("Kondenaren menpe") 70.eko hamarkadaren erritmo eta kitarrekin jolastuz sortua; beste bat ("Non duzu zauria") Kaliforniako eguzkia Euskal Herrira hurreratu; hirugarren bat ("Behin eta berriz") The Smithereens taldearen kanta zahar bat berrentzunez. "Bide bazterrean" baserrian emnatutako kanta duzue; "Ibaiaz bestaldeko auzoan", berriz, rock and roll-aren muin-muinekoa. "Apalategian" eta "Ez gara galdu" dotore eta bikain.

FM-an topa ditzakezuen irratiek ez diete leku handirik egingo. Kontsumorako pentsatutako musika ez da inoiz berekin bat etorri. Zuzenean, tamalez, lan gutxi izango dute. Aldapan gora beti. Zergatik?

Joxemari - Txabi Arnal Gil



SAN PRUDENTZIOAK GASTEIZTIK KANPO

SALOU • 10.600 pesetatik aurrera
BENIDORM • 10.600 pesetatik aurrera
PARIS • 23.600 pesetatik aurrera
LISBOA • 22.500 pesetatik aurrera
PALMA • 39.900 pesetatik aurrera

Landetara, Pirineoetara zein beste edonora joateko galde egiguzu bulegoan

ARABA BIDAIK

Servas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)
Abrevadero (Frantzia kalea ondoan) 28 21 88
GASTEIZ
Av. Zumalakarregi, 48 (672 28 42) LAUDIO

MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

mostrongot

hAurRAk

Zein da egin duzun trastakeriarik handiena?

UMEAK ZORO zoragarri batzuk dira, mostrongo txikitxuak. Gasteizko mostrongotxoak hobeto ezagutzeko Abendaño Ikastolako 5. A gelara hurbildu gara. Bertan Amaia andereñoa eta bere umeak aurkitu ditugu, eta galdetu zera diegu:

Zein da egin duzun gaiztokeri xelebreena?

Oraintxe ikusiko duzue eurek adierazi zutena

IAZ hondartzatik joaterakoan oso triste jarri nintzen. Orduan hiru polta arearekin bete eta etxera heldu nintzenean poltsa nere logelan hustu nituen. Horrela nere gela hondartza bat bezalakoa zen. Gurasoak ohartu zirenean, gela txukundu eta aste bat kalera atera gabe zigortu ninduten.

Nerea, 11 urte

HOZKAILUTIK yogur bat hartu, azpitik zulatu, jan eta berriro hozkailuan jarri nuen. Amak yogurra hartzerakoan gertatutakoaz ohartu zen. Aste bat yogurrik jan gabe egon nintzen.

Garazi, 10 urte

EGUN BATEAN nere aitaren oinetakoak leihotik bota nituen. Ez zidaten zigorrik jarri. Beste egun batean lanpara bat apurtzerakoan hilabete bat kalera atera gabe gaztigatu ninduten.

Iban, 10 urte

NIK EZ dut ezer txarrik egin. Beno, txikia nintzenean korridore-an kaka egin nuen eta nere amak oliba bat zela pentsatu zuen.

Leire, 11 urte.

GURPIL BAT bota nuen aldapa batetik, baratza batetara eroriz. Nere gurasoak ez dira oraindik konturatu.

Erik, 11 urte

HERRIAN lehengusuekin nengoela, eurek nere osabaren traktorea martxan jarri zuten. Etxean zegoela osabak traktorearen zarata entzuen, eta kalera atera zen zer gertatzen zen ikustera. Eta han geunden gu. Zigortu gintuen, eta 100pezeta gabe geratzeaz gain, leihoaren aldamenen belaunaturik egon ginen.

Naiara, 11 urte

NERE ARREBAREN alkandora armarioaren atzeko aldera bota nuen. Gurasoek izugarritzko bronka bota zidaten. Bronka eta gero-alkandora berreskuratzen saiatu ziren baina ezinezkoa gertatu zitzaion.

Daniel, 11 urte



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

xoak

ia ia ia KORRIKA txikia!



NIRE AITA etxean ez zegoela, bere erlojua logelatik hartu nuen eta komuneko zulora erori zitzaidan. Nire aitak erlojuari buruz galdetu zuenean egia esan nuen, eta ez nuen gaztigurik jasan.

Sonia, 11 urte

TXIKIA NINTZENEAN osabaren kotxearen ihes-hodian loreak sartu nituen. Osabak kotxea martxan jarri zuenean "put-put-put" entzun zen. Barregarriena nire osabak nork egin zuela ez zekiela da. Lau egunetara osabak kotxe berria erosi zuen.

Arkaitz, 10 urte

NERE ASTAKERIA handiena lagunekin harriak botatzea izan zen. Kotxe batzu kaltetu genituen. Gurasoek jakin zutenean haserretu ziren, eta arratsalde guztia etxeko-lanak egiten iragan nuen. Hori bai aspergarria izan zela.

Javi, 11 urte



ZAPATA KONPONKETA

AZKARRA

GILTZEN KOPIAK

Benito Guinea, 18
GASTEIZ

azkarprint

Cercas Bajas, 4

Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA

EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak

ere egiten ditugu

GASTEIZ

Juan Carlos Najera

hil ala biziko lehia Alaskako elurraren gainean

“ Hemen ez dago beldurtientzako lekurik, eta ahulak hil egiten dira”. Hauxe da munduko mendiko bizikletako probarik garrantzitsuenaren leloa. Juan Carlos Najera ez da beldurtia, ez eta ahula ere. Horrexegatik parte hartu zuen lasterketa horretan. Txirrindula hartuta, Alaskarantz abiatu zen duela aste batzuk, bi aldiz pentsatu gabe. Orintsu bueltatu da eta GEU Gasteizkook izan dugu berarekin hitzegiteko parada, zuei bere gazi-gozaok jakinarazteko.



BATZUOK LASAI BIZI izatea gustoko dugun bitartean, beste batzuek zirrara berriak behar dituzte, mundu honetan iraun nahi badute. Horietakoa dugu Juan Carlos Najera abenturazalea, azkenaldi honetako kirol balentriarik handiena egin duen gasteiztarra. Izan ere, orain gutxi Alaskan jokatu da munduko mendi bizikletako probarik garrantzitsuen eta kirolari gasteiztarrek parte hartu du bertan. Munduko herrialde askotatik etorritako 90 kirolari izan ziren norgehiagokaren hasiera-puntuan. Ibilbidea ere ez zen makala izan: 250 km. Negua zenez, elurrak bazter guztiak estaltzen zituen Lehiaketaren ezaugarri teknikoak ere ez

ziren nolanahikoak izan, gaez eta egunez eragin behar baitzitzairen pedalei. Lo egiteko astirik ere ez zuten izan partehartzaileek; gehienez ere, atsedendaldi labur bat tarteka-marteka, eta kanping denda baten “gozoan”, gainera. Beraz, ez da harritzekoa hiru lehiatzailetatik batek bakarrik burutu izatea ibilaldi osoa. Juan Carlos Najerak asmo bakarra zuen Alaskara abiatu aurretik: lasterketa amaitzea. Eta orain, jakina, pozik eta irripartsu dago kirolaria bere helburua lortu duelako. Horrez gain, 22. postua eskuratu du. Baina, horri ez dio garrantzi gehiegirik ematen, “helmugara iristea beste kezkarik ez bainuen”.

Bizikleta gainean bakarrik

Hasiera batean, holandar bat eta suitzar bat izan nahi zituen taldekide; gerora,

askotan galduta izan dut arriskuaz ohartzeko ahalmena

PRUDENTZIO DEUNA ESTIBALIZKO AMA BERTSO SARIA

finalerdia

Legution

apirilak 8

**Kultur Etxean
larunbata
arratseko 7,30etan**

finala

Gasteizen

maiatzak 7

**Floridako
Kultur Etxean
igandea
goizeko 11,30etan**

Antolatzailea:

**ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA**

Babeslea:



Laguntzaileak



ion'S

Taberna

era guztietako garagardoak
arratsaldeko 5etatik goizaldera
arte irekita

Salvador de Aspiaz, 11 - Tfnoa: 24 66 17




Zapa, 38

ordea, bere kasa ihardutea onena zuela oharturik nonbait, Alaskako lur elurtuetara abiatu zen, bizikleta eta partxeak lagun bakar zituela.

Makina bat gora behera izan zuen bidean Juan Carlosek, denak ere eguraldiaren laztasunak erakarriak. Ura, esaterako, behin baino gehiagotan izoztu zitzaion. Ibilbidearen zurruntasuna zela eta, milaka aldiz ibili behar izan zuen kirolari gasteiztarrek gurgilen zulaketak konpontzen, partxeen kutxatxoak aldean zuelarik. Hori gutxi balitz, bere bizitza birritan ikusi zuen arrisku gorrian; hala ere, "ez nintzen kezkatzen, arriskuei antzemateko gaitasuna galdua bainuen zegoeneko". Kinka larrian egotea zer den badaki Juan Carlos Najera: "Nire ahalmenen mugan nengoen, ezin nuen gehiago, ahalean nengoen". Adierazpen hunkigarriok adituta, ez zaigu harrigarria egingo handik piska batera esan digun hau: "Aukera berriro egokituko balitzait ere, ez nuke parte hartuko lasterketa horretan. Aski dut aurtengo esperientziarekin".

Gainera, Juan Carlosek esan digunez, Alaskako lasterketa horretan parte hartu arte, ez zen sekulan ibili elur gainean bizikletaz. Alaskan bertan entrenatu behar izan zuen, hemen horretarako aukerarik izan ez zuelako.



Floridako altzorra !

35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

ez dut berriro Alaskako lasterketa egingo, gogobeterik gertatu naiz

Beldurtiak etxean hobe

Alaskako lasterketaren leloa oso adierazgarria zen: "Hemen ez dago beldurtientzako lekurik, eta ahulak hil egiten dira". Juan Carlos Najerari oso deigarria eta harrotua iruditu zitzaion hasieratik esaldi hori. Hori zela eta, lasterketa hasi aurretik, antolatzaileei galdetu zien ea hori hainbesteko ote zen. Aurpegia ilunduz erantzun zioten, hori zalantzan jartzea iraina bailitzan. Gero, Juan Carlos Najerak berak ikusi ahal izan zuenez, antolatzaileen esana ez zen errealitatetik batere urrun egon.

Estatu batuarrak eta inuitarrak

Alaskan egin duen egonaldian izandako bizipenak oso tinko ditu gogoan Juan Carlos Najerak. "Oso lekua arraroa eta nabarra iruditu zait: batetik, estatubatuarrek zeuden eta, bestetik, inuitarrak. Estatu batuarrak jatorria zutenek oso harrera ona egin ziguten, oso ondo portatu ziren gurekin. Inuitarrak, bitartean, kalean eta tabernetan ibiltzen dira, zurrutari loturik beti. Izugarritzko arazo gogorra dute alkoholarekin. Identitate edo nortasun problema handia du herri horrek, zoritxarrez".

Inaxio Lpz de Arana



Certescan, amets zuria

CERTESCAN IZENeko eskualdea duzue Kataluniako Pirineoetako alderik elurtsuena (urtean 169 zm, batz bestea). Aste Santua aprobetxaturik, mendiko eskian lehenengo urratsak emateko edota dakizuna borobiltzeko aukera paregabea izan dezakezu bertan. Inguru hori alderik alde zeharkatzen duten hogeita hamar bide zurik eskiatzailerik asegaitzena ere gogobeterik utziko du. Gainera, bai bertako mendi gailurren edertasunak bai inguruko lakuen ugaritasunak erabat txundituko dute mendigoizale edota eskiatzailerik ibiliena ere. Gaua iritsita, non lo egin goxo ere badago: Alejandro Gamarra gasteiztarrek zaintzen duen aterpean. Horra hor, beraz, Aste Santuko oporralditxorako plan polit bat.

Lleidako eskualde honetara neguan edo udaberriaren hasieran joan nahi izanez gero, batek baino gehiagok, seguru asko, gorriak ikusiko ditu bertako aterperaino iristeko. Izan ere, udako gurdibidea elurraren azpian ezkutatzeko da, 40 gradurainoko makurdura duten izotz plaka zeharkakoak ezartzen direlarik bertan, elurjausiak gertatzeko arriskua sortuz. Kontuz ibili, beraz.

Aterpera helduta, arriskua gutxitu egiten da, beti tentuz ibiltzea komeni bada ere. Mendiko eskiari lotu nahi dionak bertako inguruak aukera ezin hobeak eskainiko dizkio horretarako. Kirol horretan hasita dagoenak ere izango du zertaz gozatu,



berarentzat ere nahi adina txangoaldi egoki aurkituko baitu Certescaneko eskualdean.

Non ostatu

Certescaneko aterpea, 2.240 metrotara dagoena, zeharo aproposa da txangoaldien abiapuntua izateko. Gainera, iazko berrikuntza-lanek norbere etxean bezain eroso egoteko modurik ematen dute. Aterpea hutsik delarik, 20 lagunek lo egiteko haina leku dago; zaindaria (Alejandro Gamarra gasteiztarra) bertan egonda, berriz, aterpearen edukierak halako bi egiten du. Zaindaria dagoen bitartean (udan, zubietan eta Aste Santuan), bestelako zerbitzurik ere eskain-tzen dute: otorduak, argindarra, dutxak, komunak, helipuertoa, larrialdietarako emisora, berogailua, etab. Hara joan aurretik, komeni da horren berri aurrez ematea. Horretarako, deitu (945) 258747 edo (93) 4429877 telefonetara.

Nola joan

Hauze duzue, gutxi gora behera, ibilbidea Gasteizetik abiatuta: Iruñ-Baiona-Montréjeau-Viella-Llavorsi-Lladorre-Tabascan. Azken herri honetatik gurdibide bat hartuta (elurrak uzten badigu, behintzat), 2.000 metrora iritsiko gara kotxetik atera gabe. Handik, arabi eta erredodendro ugariz apainduriko bideska bihurturik bati oinez ekin eta, 40 minututan, Certescaneko aterpera iritsiko gara, urjausi ikusgarriak atzean utzi eta gero.

DeNb OrApa Sak



Ekonomi egoera txarrean zeuden bi ijitu Goardia Zibilean sartu ziren, azken errekurso bezala. Lehenengo lanegunean beste bi ijitu ikusi zituzten zuhaitz baten gainean lapurretan. Haiengana bertaratzerakoan zuhaitzeko batek esan zuen:

- Kontxo! Pikoletok!
Eta laurek ihesari eman zioten


Zelan esaten da erruandarrez "amona mariskoa jan eta gero hil egin da"?

Amamaganbajandajunda

- Ama, ama. Erroma Zaharrean zergatik hiltzen ote zituzten kristauak gurutzatuta?

- Bada... zenturionek Erroma zeinek erre zuen galdetzerakoan erantzuten zutelako: Neronek, Neronek.

GURUTZEGRAMA



ZEHARRETARA: 1. Fosforoa. Amaiera. 2. Iodoa. Ari izango. Potasioa. 3. Balio erantsiarekiko zerga. Iaio. 4. Ospakizun paganoak. 5. Kea duena. Hidrogenoa. Lehena. 6. Iodoa. (Musika nota). Zerbaitetara egin. 7. Etxaurrea. Estatu Batuak. 8. Espainiako autoetan. (ald.) Nafarroako autoetan. Bigarren pertsona. Tantaloa. 9. Oxigenoa. Ile asko duena. 10. Arabako mendialdeko herriska. Amnesty International

GOITIK BEHERA: 1. Motoa, emakumeen burukoa. Bigarren bokala. 2. Portugaleko autoetan. Euskal Herrian Euskaraz. Lehena. Joan aditzaren erroa. 3. Arabako mendate bat. Tarragonako autoetan. 4. Armadako oihu. Europako E-ko estatua. 5. Euskaraz eta...! Roentgena. Lugoko autoetan. 6. Anglosaxoniarren neurri. Mutil izena. 7. Hego Afrikako kolonoa. Antilletako irla. 8. Bigarren bokala. Ale. Sufrea. 9. Roentgena. Bizkaiko kostako herrixa. Hodia. 10. Plural atzizkia. Zergatia. Iodoa.



erantzunak



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfno:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 71 37
01005 GASTEIZ

kultur agenda ■ APIRILA ■

Arabako triptiko lehiaketa



GAIA: Erreziklagaia

NOIZ ARTE: Apirilak 12a arte
NORI ZUZENDUA: 1.go mailako
IEE, LH eta BBBko ikasleei
ANTOLATZAILEA:
Francisco de Vitoria ikastetxeko
euskara mintegia
El Salvador kalea z/g 01012 Gasteiz

Lehenengo bost onenek hainbat sari eskuratuko dute:
mountainbike bat, HABE aldizkariaren harpidetzak, liburuak erosteko baleak, Argazki makinak eta abar luze bat..

Parte hartu edota informazio gehiago behar baduzu jo ezazu antolatzaileengana.

Anima zaitetz !

PRUDENTZIO DEUNA ESTIBALIZKO AMA BERTSO SARIA

Apirilaren 8an, arratseko 7,30etan Legutioko Kultur Etxean finalerdia izango da.
Maiatzaren 7an, goizeko 11,30etan Floridako Kultur Etxean finala.



EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindia eta bere
lana: hitzaldiak



Egitura eta funtzionamendu orokorrak

apirilak 4 arratseko 7 t'erditan
Landatxo Gizarte Etxean
HIZLARIA: ENDRIKE KNÖRR

Ikerkuntza, gramatika eta azken gomendioak

apirilak 11 arratseko 7 t'erditan
Iparralde Gizarte Etxean
HIZLARIA: PATXI GOENAGA

GASTEIZtik IRUÑEARako mendi travesia

GASTEIZTIK Iruñera joateko modu asko dago. Ezetz aurkitu hau baino orijinalagorik!

Bagare
EUSKAL TOKIA

APIRILAREN 13TIK 17RA

ETAPAK

GASTEIZ - OKINA
OKINA - OPAKUA
OPAKUA - LIZARRAGA
LIZARRAGA - ARTETA
ARTETA - IRUÑEA

Txangoaren prezioa 15.000 pezeta kalkulatu dugu. Animatuz gero, sartu dirua ondoko kontu korrontean apirilaren 3a baino lehen

Euskadiko Kutxa
080.0.01649.8

Apirilaren 8an bilera bat egingo dugu.

*anima
zaitetz !*



AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiaaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea **Kutxileria 23**

GEUREKIN

MENDIRA



ARATZ MENDIA
(1.440)

Apirilak 23
(igandea)

IRTEERA: R.E.N.F.E. ko
tren geltokitik goizeko
10etan*

ITZULERA: 16,30etan

Ibilbidea:

ARAIA -
-ARATZ (1.440 M.) -
- ARAIA

Oharrak:

*Txangoaldiak 5 bat ordu iraungo du.
Oinez egingo da oso-osorik.
Eguna eta ordua bere horretan
mantendu direla segurtatzeko,
ondorengo telefonora dei dezakezu
aurreko ostiraleko goizean

22 21 53



sukalde txokotik

EGIN! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE



Dos hermanas: J. Ramon Agiriano

ZERGATIK ZARA SUKALDARIA?

Egia esan, jaio nintzenetik izan dut zaletasuna. Gustokoa dut, gainera. Mundu horretatik oso hurbil bizi izan naiz txiki txikitatik. Jatetxe hau nire amonak eta bere ahizpak ireki zutenetik 107 urte pasa dira. Horra bere izena "Dos hermanas"; egun hirugarren belaunaldian gaude.

UDABERRIAREN ATARIAN GAUDE, APIRILA HURBIL DUGU, ZER PLATER GOMENDATZEN DIGUZU?

Janari kontutan jateko bi urtaro zoragarri ditugu udaberria eta udazkena. Udazkenean udaberrian baino gauza gogorrak eta mamitsuak jaten ditugu. Udaberrian natura berpizten da eta horrekin batera, agertzen dira perretxikoak eta barazkiak orobat, alkatxofak, abak bazterretan azaltzen zaizkigu eta, itsasoari dagokionez txipiroiak. Ezin dugu ahaztu garai horretan ardorik goxoak sortzen direla.

ORAIN IREKI DUTE JATETXE BERRI ASKO, ESATERAKO, MEJIKARAK, TXINATARRAK,... ZER DERITZOUZU HORRI?

Nire ustez, moda bat besterik ez da. Euskaldunok sortzez sukaldaritza dugu gustuko, ongi eginga dena. Moda berri hori bi arrazoi medio hedatzen ari da batetik, heziketa txarra eta, bestetikarazo ekonomikoak. Gazte batzuek txikitatik gaizki jan dute eta edozein gauzarekin konformatzen dira. Egia esan, ez dakit jantoki horiek ezer onik ekarriko ekarriko dioten euskal sukaldaritzari. Ziur dakit, bestalde, plater asko ez digula kopiatuko.

Aldi baterako moda besterik ez da. Merke jan daitekeen lekuetan kalitatea ez da hoberena izaten.

LIGATU NAHI DUEN BATI ZEIN JANARIA GOMENDATUKO ZENIOKE?

Egia esan, ez dakit. Baina argi daukat ligatu izanez gero, Dos hermanas jatetxera etorri behar dela, horrek ez du sekulan hutsik egiten. Ni neu arduratuko naiz haren afariaz eta ez dakit ligatuko duen ala ez, baina ziurra da gonbidatua poz-pozik geratuko dela. Lige hori primerakoa izango da, ez dut zalantzarik. Egundorretarako aholku bat eman behar izatekotan, hona: ez jan gehiegi, gustora baizik.

GAZTEAK NORMALEAN EZ DIRA JATETXEETARA JOATEN. ZER DELA ETA?

Sukaldaritza kultura da eta gazteak kulturizatu behar ditugu. Gazteek diru gehiago inbertitu beharko lukete sukaldaritzan, euskal ondore preziatua baita, eta gutxiago edan. Asteburu baterako 5.000 pzta, daukate, oraingo gazteak, 4.000 pzta, gastatzen dute edaten eta 1.000 edaten. Hori ez dago ondo. Hobe alderantziz egingo balute. Gainera gorputzak eta gure kultura eskertuko liokete. Honela jokatuz gero, sasoi betean egongo zara, bai ligatzeko bai edozein gauzatarako.

ZURE USTEZ ARGIANOK ETA SUBIJANAK LAGUNDU DIOTE EUSKAL SUKALDARITZARI?

Karlos Arguiñano niretzat oso atsegina da eta sukaldaritza egunero dakarkigute etxera. Gainera jende asko hortik hartzen ditu errezetak. Beraz oso importanteak dira.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN


"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran • GASTEIZ

ME-
DA-
OR-
TEN

GABON, JAUN ANDREOK!
GAUR "LOOK" APARTA
EDUKITZE A IKASIKO
DUZUE...



ETA IKAS-
GAIA ERAKUSTEKO,
SILBIAREN LAGUN-
TZA IZANGO
DUGU...

KAIKO



LEHENDA-
BIZI,... OINETAKO-
AK, PIKUTARA!!



GERO,
JANTZIAK, PA-
PEROTZIRA!



ATARI BA-
TETIK BEHARTSIZENIZKO
JANTZI POLITA BAT LARUR-
TUKO DUGU, PRAK A GA-
BARDINA EGOKIAK
AUKERATUZ



HURRENGO PAUSOA:
"GEU GASTEIZ" ALE
ZAHAR BAT HARTU
ETA PLEGATU...



ETA BUKATZEKO,
BURURA LOTUKO DUGU
KORBETA ZAHAR
BATEKIN...



TA "ALE-HOP"! HEMEN
DAGO "TXEROKI PATATERO"
BATEU BENETAKO
ITXURA!



OHARRA:

"GEU GASTEIZ"
ERREDAKZIO
BATZORDEAK,
NORBAIT
TXORAKERIA
HAU JARRAI-
TUZ KALERA
ATERATZEN
BADA, BERE
ERRESPONSA-
BILITATEA
EZEZTATUKO
DU...


GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





Araban aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskatu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



Arabako
Foru Aldundia

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundación